

## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

• Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa

#### Helburuak

- Gorputz-atalen hiztegia ikastea.
- Gorputz-atalen hiztegi berria entzutea eta horretara ohitzea, aurrerago, eurek ekoitzi ahal izateko.

#### Prozedura

- Ume bakoitzak bere kartoia edukiko du eta hezitzaileak fitxaz betetako poltsa bat.
- Hezitzaileak fitxa bat aukeratu eta atera ondoren, erakutsi barik, hor ikusten duena izendatu.
- Umeek euren kartoietan entzundako gorputz-atala agertzen den ikusi. Hala bada, irudi hori ezabatu, estali ...
- Kartoietan dituzten irudi guztiak estalitakoan, BINGO esan. Lehenengo esaten duenak, irabazle.

#### Oharra

- Ekintza hau behin baino gehiagotan erabil daiteke, eta beti ere, umeen mailaren arabera eta gaiaren une ezberdinetan txertatuz.